



2016KO EKAINAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko ekainaren hogeita zortzian, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2016ko maiatzaren 31n egindako ohiko eta ezohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZ IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.-

2016ko aurrekontuaren eta aurrekontuari egindako kreditu txertaketa bidezko 1 eta 2 zbk.dun kreditu aldaketen onarpenetan, aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruz Idazkari Kontu-hartzaileak txosten honen eta honi erantsitako 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan aurreikusitako txostenaren berri ematen du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- HIRI ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN TASA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du katastro berrikuspena egiten ari dela eta hortik ateratzen diren berrikusitako balio katastralak, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera eragina izan dezaten, interesatu guztiei jakinarazi egingo dizkie.



Halaber Jakinarazpen horietan udal bakoitzak aplikatuko duen zerga tasa ere agertzea nahi du eta horregatik udalei eskatu die ekainaren 30a baino lehen zein tasa aplikatuko duen esateko.

Honen aurrean, eta oraindik behin betiko balio katastralak zein izango diren ez dakigunez, zerga tasa bere horretan uztea proposatzen da, hau da:

- Industriadako lurzoruan kokatutako ondasunak milako 6,00000
- Orokorra milako 1,86522

Guzti honen aurrean, eta gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, hiri ondasun higiezinen gaineko zergaren zerga tasa bere horretan uztea erabakitzen du.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa honetako xehetasunen azalpena egin du.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du proposatzen diren hainbat aldaketekin ados daudela. Hala ere, gai honi buruzko informazioa ogasun batzordean eman zela eta jaso zutela baina beraiek nahiko luketena informazioa batzordearen bilkuraren aurretik jaso, aztertu eta batzordea egiten denean beraien iritzia eman ahal izatea dela. Informazioa eman zaiela baina eragiteko aukerarik gabe gelditzen direla eta hori horrela izanik abstenitu egingo direla.

Alkateak erantzuten dio abstenitzeko aitzakia bezala erabili nahi badu erabiltzeko baina kreditu aldaketa honetan sartutako gastu asko ogasun batzordearen aurretik ere hainbat batzordetan aipatutakoak direla eta beraz hori ez dela horrela.

Gaiaz eztabaidatu ondoren bototara jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), honako hau

ERABAKI DU

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK



Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	376.000,00€
IV	Transferentzia arruntak	2.000,00€
VI	Inbertsio errealak	12.000,00€
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		390.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	390.000,00 €
GUZTIRA		390.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- 13 H.J.A. –HIRIGOIEN-GO, GURUTZE 1-6 KO PLAZAK, HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 13. Hirigintz Jarduera Areako-Hirigoien-Gurutze 1-6ko plazetako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoari 2016ko martxoaren 17ko Alkatezaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmo hau udalak berak sustatutakoa da eta Miguel A. Irazabalbeitia eta Pedro Izaskun arkitektoek idatzitakoa.

Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmo hau jendaurrean hogeitun eguneko denboraldian eduki da, iragarkiak 2016ko martxoaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2016ko martxoaren 31ko Berria eta El Diario vasco egunkarietan argitaratu direlarik. Jendaurrean egon den epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Bestalde sektoreko txostena eskatu zitzaion Ur Agentziari eta honek komunikatu du txostena aldekoa dela.

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, gaia aztertu eta hirigintza batzordearen proposamena ikusita, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

Lehena.- Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 13 Hirigintz Jarduera Areako –Hirigoien-Gurutze 1-6ko plazetako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmo honi behin betiko onarpena ematea.

Bigarrena.- Dokumentuaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa sailari helaraztea, dagokion erregistroan gordailuan utz dezan.



Hirugarrena.- Behin betiko onespenerari buruz erabakia eta, gutxienez, hirigintza-arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sar daitezkeen ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 89.5. artikuluan ezarri duenari jarraituta. Behin betiko onespenera emateko erabakia, gainera, dagokion lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratuko da.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zapiak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]